EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2018KO ABENDUAREN 20KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (deialdiko 2. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00022]

Aintzat hartzea onetsi egin da.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 20 DE DICIEMBRE DE 2018

1. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, para la creación de la oficina de buenas prácticas y anticorrupción. [11\09\02\02\00022]

Aprobada la toma en consideración.

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

**2. (deialdiko 3. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00492]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

124/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak erabateko elkartasuna adierazten die sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabe guztiei, eta konpromisoa hartzen du beharrezko diren neurri guztiak bultzatzeko, ume eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria desagerrarazteko bidean aurrera egiteko xedearekin.

Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak hainbat erakunde, elkarte eta pertsonaren lana nabarmendu nahi du, adingabekoen aurkako sexu-abusuak ikusgarri egiten dituztelako, arazo honen inguruan sentsibilitatea sortzen lan egiten dutelako, eta horrelako delituak salatzen dituztelako, umeen eskubideen urraketa larria baitira.

Modu berean, elkartasuna adierazten die biktimei, haien familiei eta lagunartekoei, eta gizarteari dei egiten dio babes eta errekonozimendu horiekin bat egitera.

2. Eusko Legebiltzarrak botere publikoei eskatzen die, bakoitzak bere jardun-eremuaren eta eskumenen barnean, protokolo eta prozedura egokiak ezar ditzatela, adingabekoen aurkako sexu-indarkeriako prozesuetan umeen eta nerabeen interes gorena gailendu dadin. Ildo horretan, agintari eta erakundeei eskatzen die, gizartearekin batera, sala ditzatela ezagutzen dituzten kasuak, lagun egin diezaietela biktimei, eta baliabide egokiak jar ditzatela biktimak babesteko.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, bere eskumenen barruan, neurri egokiak har ditzala adingabekoen aurkako sexu-indarkeria (eta gure gizartean gertatzen diren gainerako indarkeriazko egoerak) prebenitu eta detektatzeko, eta biktimak babesteko.

**2. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a las violencias sexuales contra la infancia y adolescencia. [11\11\02\01\00492]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

124/2018

"1. El Parlamento Vasco manifiesta su absoluta solidaridad con todas las víctimas de violencia sexual, en la infancia y la adolescencia, comprometiéndose a impulsar todas las medidas que sean necesarias para avanzar en la erradicación de la violencia sexual hacia niños, niñas y adolescentes.

En ese sentido, el Parlamento Vasco pone en valor a las organizaciones, entidades y personas que están trabajando en la sensibilización y visibilización de los abusos sexuales a menores de edad, así como la denuncia de estas conductas delictivas, que suponen además una gravísima vulneración de los derechos de la infancia.

Asimismo traslada a las víctimas y sus familias, y personas allegadas, su solidaridad, convocando a la sociedad a sumarse a este apoyo y reconocimiento.

2. El Parlamento Vasco insta a los poderes públicos, cada uno dentro de su ámbito de actuación y competencia, a establecer los protocolos y procedimientos adecuados para hacer prevalecer, en los procesos de violencia sexual hacia menores de edad, el interés superior de los niños, niñas y adolescentes. En ese sentido, también, instan a las autoridades e instituciones, junto a la sociedad, a promover la denuncia de los casos que sean conocedores, acompañando a las víctimas y prestándoles los recursos necesarios para su protección.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a adoptar, dentro de sus competencias, las medidas necesarias para prevenir, detectar, y proteger a los y las menores víctimas de la violencia sexual, así como del resto de situaciones de violencia que puedan producirse en nuestra sociedad.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hezkuntzaren alorrean dagoen jarduketa-protokoloa ezartzen eta garatzen jarrai dezala, ume eta nerabeen balizko babesgabezia, tratu txar, jazarpen eta abusu egoeretan, eta hartara adingabekoen babesean parte hartzen duten gainerako eragileekin batera eta koordinaturik lan egin dezala.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala prebentzioko eta jarduketako protokoloak ezartzen eta garatzen, eskumen-eremu guztietan, adingabekoen aurkako sexu-abusuzko ustezko delituen aurrean, baita babesgabeziako, tratu txarren eta jazarpeneko delituen aurrean. Modu berean, eskatzen da Eusko Jaurlaritza akusazio partikularra izan dadila, indarrean dagoen araudiak hala exijitzen duen kasuetan.

Modu berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio neurriak aztertzen jarrai dezatela, helburu hauekin: ume eta nerabeei egindako kalteak konpontzeko; ume eta nerabe biktimekin lan egiten duten kolektibo profesionalen espezializazioa sustatzeko, eta "Zeuk Esan" programarekin eta antzekoekin lanean jarraitzeko.

6. Eusko Legebiltzarrak Elizari eskatzen dio behar diren bitarteko guztiak abian jar ditzala honelako kasuak prebenitzeko eta salatzeko, salatzaileak eta biktimak babesteko, eta une oro argitu, zigortu eta erabateko erreparazioa eman dezala Elizari lotutako ikastetxeetan salatzen diren kasu guztietan. Halaber, konpromiso zehatz eta eraginkorrak eskatzen ditu, ez errepikatzeko bermeak eskaintzen dituzten neurriak hartzeko.

7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ikuskapen-protokoloak indartu ditzala ikastetxeetako zuzendaritza-organoen ekintzen gainean, ikastetxeetan gertatzen diren sexu-abusuen salaketa eta kondenen aurrean. Gainera, arau-hausteen eta zehapenen prozedura egokitzeko neurriak proposatuko dira, zerikusia duten kolektiboen arauzko esparruaren barruan, baldin eta jarduketa horiek ez badatoz bat ezarrita dagoen jarduketa-protokoloarekin.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir implementando y desarrollando el Protocolo de Actuación en el ámbito educativo ante situaciones de posible desprotección y maltrato, acoso y abuso sexual infantil y adolescente en colaboración y coordinación con el resto de agentes que intervienen en la protección de la persona menos de edad.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir implementando y desarrollando protocolos de prevención y actuación, en los distintos ámbitos competenciales, ante presuntos delitos de abusos sexuales a menores de edad, así como otros relativos a desprotección, maltrato y acoso. También se insta a que en los casos en los que la normativa vigente así lo exija, el Gobierno Vasco se persone como acusación particular.

Asimismo, se pide al Gobierno Vasco que continúe estudiando las medidas para implementar la reparación de daños y perjuicios causados a niñas, niños y adolescentes, así como el fomento de la especialización de los colectivos profesionales que trabajan con niños, niñas y adolescentes víctimas, así como a continuar trabajando mediante programas como Zeuk Esan.

6. El Parlamento Vasco solicita a la Iglesia la puesta en marcha de todos los medios necesarios parara prevenir, denunciar y proteger a denunciantes y víctimas facilitando en todo momento el esclarecimiento, sanción, reparación integral de todos los casos que se denuncien en los centros educativos vinculados a ella. Así mismo solicita compromisos concretos y eficaces en la adopción de medidas que ofrezcan garantías de no repetición.

7. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar protocolos de inspección sobre las acciones de los órganos de dirección de los colegios ante las denuncias y condenas de abusos sexuales en sus centros, incluyendo la propuesta de medidas de adecuación del procedimiento correspondiente de infracciones y sanciones dentro del marco normativo referido de los colectivos implicados, en caso que dichas actuaciones sean contrarias al protocolo de actuación establecido.

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio guztiz bete dezala Legebiltzarrak 2017ko ekainaren 5ean hartu zuen erabakia. Erabaki haren bidez, besteak beste, eskatu zen txosten bat egin zedila umeen eta nerabeen aurkako indarkeriazko kasuak prebenitzeko, artatzeko eta babesteko politikak ebaluatzeko, eta prebentzio eta jarduketako protokoloa berrikusi eta sendotu zedila, hezkuntzaren alorrean gerta litezkeen sexu-abusuko egoeren aurrean".

8. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir de forma íntegra el acuerdo que se alcanzó en esta misma cámara el pasado 5 de junio de 2017, por el que se instaba, entre otras cosas, a elaborar un informe de evaluación sobre políticas de prevención, atención y protección en casos de violencia hacia niñas, niños y adolescentes, así como a revisar y reforzar el protocolo de Prevención y Actuación en el Ámbito Educativo ante posibles situaciones de abusos sexuales".

**3. (deialdiko 4. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Kataluniako buruzagi independentisten aurkako prozesu judizialari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00487]**

EA-NV eta EH Bildu taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

125/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak salatzen du Estatu espainola Justizia politikoki instrumentalizatzen ari dela Kataluniako buruzagi independentisten aurkako prozesu judizialean, eta egiaztatzen du Cosidó izena eman zaion dokumentuak zeharo urratzen duela botere-banaketaren printzipioa. Izan ere, agerian utzi du, gardentasun osoz, botere judiziala instantzia politikoetatik zuzentzeko estrategia bat dagoela, 'Auzitegi Goreneko Bigarren Aretoa atzetik kontrolatuta eta 61. Aretoko presidentzia hartuta, subiranismo katalana bururik gabe uzteko eta independentismoa likidatzeko´ helburu politikoarekin.

2. Eusko Legebiltzarrak salatzen du independentista katalanei egotzi nahi zaizkien delituak zentzugabekeria juridikoa direla, bai eta astakeria sozial eta politikoa ere.

3. Eusko Legebiltzarrak adierazten du politika judizializatzeak konponbideak eman baino enkistatu, blokeatu eta zaildu egiten dituela. Katalunia eta Estatu espainolaren arteko harremanetik eratorritako gatazka politikoak elkarrizketan oinarritutako irtenbide negoziatua aurkitu behar du, bide politiko eta demokratikoak erabilita. Hori dela eta, Legebiltzarrak Estatu espainoleko botereei eskatzen die errespetatu ditzatela Kataluniako herria eta hori osatzen duten pertsonak, beren eskubideak, norbanakoak zein kolektiboak, eta beren etorkizun politikoari buruz libre eta demokratikoki hartzen dituzten erabakiak.

4. Eusko Legebiltzarrak exijitzen du berehala aske uztea Carme Forcadell, Jordi Sànchez, Jordi Cuixart, Oriol Junqueras, Jordi Turull, Josep Rull, Raül Romeva, Joaquim Forn eta Dolors Bassa.

**3. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre el proceso judicial contra dirigentes independentistas de Cataluña. [11\11\02\01\00487]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV y EH Bildu.

125/2018

"1. El Parlamento Vasco denuncia la instrumentalización política de la Justicia que realiza el Estado español en el proceso judicial contra dirigentes independentistas de Catalunya, y constata que el denominado documento Cosidó supone la quiebra absoluta del principio de separación de poderes, porque descubre con absoluta transparencia la estrategia de dirigir el poder judicial desde instancias políticas 'controlando la Sala Segunda del Tribunal Supremo desde detrás y presidiendo la Sala 61', con el objetivo político de 'descabezar líderes del soberanismo catalán y liquidar el independentismo'.

2. El Parlamento Vasco denuncia que los delitos que se pretende imputar a las y los independentistas catalanes constituyen además de un disparate jurídico un despropósito social y político.

3. El Parlamento Vasco manifiesta que la judicialización de la política, lejos de ofrecer soluciones, las enquista, bloquea y dificulta. El conflicto político derivado de la relación entre el Estado español y Catalunya debe encontrar la solución dialogada y negociada por vías políticas y democráticas. Por ello, el Parlamento insta a los distintos poderes del Estado español a respetar al pueblo de Catalunya, a las personas que lo integran, sus derechos individuales y colectivos y las decisiones que libre y democráticamente adopten sobre su futuro político.

4. El Parlamento Vasco exige la inmediata puesta en libertad de Carme Forcadell, Jordi Sànchez, Jordi Cuixart, Oriol Junqueras, Jordi Turull, Josep Rull, Raül Romeva, Joaquim Forn y Dolors Bassa.

5. Eusko Legebiltzarrak ebazten du Auzitegi Goreneko Bigarren Aretoan egitekoa den ahozko epaiketan izango dela, xede horrekin ordezkaritza bat izendatuta, eta, horretarako, behar diren gestioak egiteko eskatzen dio Ganbarako presidenteari".

5. El Parlamento Vasco acuerda estar presente en las sesiones de la vista oral a celebrar ante la Sala Segunda del Tribunal Supremo mediante la delegación designada al efecto, para lo cual solicita a la presidenta de la Cámara la realización de las gestiones oportunas".

**4. (deialdiko 5. puntua) Mozioa, José Ramón Becerra Carollo Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Euskadin eukaliptoa espezie inbaditzaile deklaratzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00102]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

44/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta azkarren abian jar dezala espezie exotiko inbaditzaileen Euskadiko katalogoa sortzeko prozedura administratiboa.

2. Eusko Legebiltzarrak eskumena duten sailei eskatzen die abian jar dezatela azterketa zientifiko eta tekniko bat, eukaliptoak gure lurraldean duen egoera aztertuko duena, hala nola hazkunde azkarreko beste espezie batzuena, eta horrek lurrean, bioaniztasunean eta abarrean izan dezakeen eragina.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala, gure lurraldea eta bere bioaniztasuna babesteko ingurumen-politika egokienak sustatze aldera, eskumena duten beste erakundeekin batera".

**4. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. José Ramón Becerra Carollo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, relativa a la declaración del eucalipto como especie invasora en Euskadi. [11\11\03\00\00102]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

44/2018

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a poner en marcha, en el plazo de tiempo más breve posible, el procedimiento administrativo para crear el catálogo de especies exóticas invasoras de Euskadi.

2. El Parlamento Vasco insta a los departamentos competentes a poner en marcha un estudio científico y técnico que evalúe la situación del eucalipto en nuestro territorio, así como de otras especies de crecimiento rápido, y el impacto que pueda representar para el suelo, la biodiversidad, etcétera.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a trabajar con el resto de las instituciones competentes en el impulso de las políticas medioambientales más adecuadas para la protección de nuestro territorio y su biodiversidad".

**5. (deialdiko 6. puntua) Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, medikamentu generiko eta biosimilarren plan estrategiko bat prestatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00491]**

EA-NV, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

126/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio jarraitu dezala aldezten, Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko Farmazia Batzordean, medikamentu generikoak bultzatzeko plan estrategiko bat eta medikamentu biosimilarrak bultzatzeko plan estrategiko bat prestatzea autonomia-erkidegoekin batera, OSNren Lurralde arteko Kontseiluan onets dadin.

2. Halaber, iruditzen zaio plan horietan jaso behar direla berariazko informazio- eta eguneratze-ekintzak eta haiek erabiltzeari buruzko konparazio-irizpideak, Osasun Sistemako medikuei zuzenduak, bai beren lan-jarduera Osasuneko Lehen Mailako Arretan egiten dutenei, bai ospitaleetan lan egiten dutenei".

**5. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la elaboración de un plan estratégico de medicamentos genéricos y biosimilares. [11\11\02\01\00491]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP, SV-ES y PV-ETP.

126/2018

"1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a que continúe apoyando, en la Comisión de Farmacia del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud, la elaboración, junto con las comunidades autónomas, de un plan estratégico de impulso de los medicamentos genéricos, así como de un plan estratégico de impulso de los medicamentos biosimilares, para su aprobación en el Consejo Interterritorial del SNS.

2. Asimismo considera que estos planes deben contemplar acciones específicas de información y actualización y criterios comparativos sobre su uso, dirigidos a los médicos del Sistema de Salud, tanto a los que desarrollan su actividad laboral en la Atención Primaria de Salud como a los que trabajan en el medio hospitalario".